



Talde bakoitzak 4 jokalaria titular eta ordezeko 2, eskola kirolaren arautegian oinarrituz jokalaria guztiak gutxienez partida bat jokatu beharko dute, eta kapitain lanak eta adinez nagusia izango den taldearen ordezkari 1 izango ditu.

Lurralde bakoitzak ordezkari bat izango du.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

Lurralde bakoitzak txapelketa hasi baino astebete lehenago norbere lurraldeko irabazleen zerrenda emango du eta baita taldeen osajerarena ere telefono, fax edota e-mail bidez. Hau aldaezina izango da lurraldean justifikatutako eta onartutako kausa handi bat izan ezean.

Lurralde guztietako ikastetxe edo elkarteetako neska zein mutilek hartu dezakete parte. Partaide batek beste ikastetxe edo elkarte bat ere defendatu dezake, baldin eta aurretik ere herriko txapelketan bertan jokatu badu eta bertako zerrendetan agertzen bada.

Parte-hartzaile batek bi lurralde ordezkari ditzake modalitate berdinetako bi probata ezberdinetan (banakakoa eta taldekoa), baldin eta tartean diren foru aldundiek baimendu badute.

Txapelketa unean betetzen ez den ordezkariak ezingo da bete antolaketa egokitutako lurraldearen ordezkariekin.

3. BAKARKAKO ARAUTEGIA



Partidak apuntatzea derrigorrezkoa izango da, bandera jaitsi baino 5 minutu lehenago egiteari utzi daitekeelarik.

Partidak 55 minututara +5 segundoko gehikuntzarekin jokatuko dira.

Lurralde guztiek ezin izango dute jokalaria maskulino edo femeninoak trukatu beste sexu batengatik, eta halako baldintzako jokalaririk ez izatekotan, bere plaza bete gabe geratuko da.

Lurralde guztiak ordezkari bat aurkeztu ahal izango du talde-koordinatzaile bezala, eta bere barrutiaren interesen alde.

Parte-hartzaile bat errondetako batera agertzen ez bada aldez aurretik jakinarazi gabe lehiaketan jarraitzeko prest dagoela, parte-hartzailea automatikoki kanporatuko da. Lehenengo txandara agertzen ez den parte-hartzaile oro lehiaketatik kanpo geratuko da, baita ondoz ondoko bi txandetan edo hiru txandetan agertzen ez diren parte-hartzaile guztiak ere.

Txanda batera agertzeko gehieneko itzarote denbora 30 minutukoa izango da (txanda hasten den ordu ofizialetik aurrera).

Bi jokalariren edo gehiagoren artean berdinketarik izanez gero, honela jokatu da:

1. Erdiko sistema Bucholz (Jolastu dutenen onena eta txarrena kenduta).
2. Sistema Bucholz totala.
3. Puntuazio progresiboen batura.



Edozein arazo sortuko balitz, jarraibideak txapelketarako izendatutako talde teknikoaren ardura izango litzateke.

Bere sexuan sailkapen onena lortzen duten jokalariek Espainiako txapelketetan parte hartzeko eskubidea izango dute.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.

4. TALDEKAKO ARAUTEGIA

Ez da beharrezkoa partidak apuntatzea

Partidak 12 min-etara +5 segundoko gehikuntzarekin jokatuko dira.

Txanda batean agertzeko gehieneko itxarotea 10 minutukoa izango da hasiera ordu ofizialetik hasita.

Talderen baten justifikatu gabeko ez agertze bat ematen bada, txapelketatik kanporatua izango da.

Talde bat baliozkoa izan dadin gutxienez 3 jokalaria izan behar ditu, bestela deskalifikatua izango da.

Bi taldek edo gehiagok puntutan berdinduz gero, ondoko sistema erabiliko da:

1. BEREN ARTEKO EMAITZA.
2. SONNEBORD-BERGER.
3. SISTEMA HOLANDARRA.
4. LEHENENBIZIKO TAULAN BELTZEKIN JOKATU DUTENAK

Txapelketako antolaketa eta epai taldea:



Txapelketako zuzendaria: Julen Rodriguez Aboy.

Epaile nagusia: Lukas Iruretagoiena Pascual.

Epaile laguntzailea infantil eta alebin mailetan: Josu Astigarraga Toledo.

Epaile laguntzailea: Miguel Angel Almansa Martín.

Arlo teknikoan edozein arazo sortuko balitz aurretik aipatutako taldeak epaituko luke.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.

5. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Taldekako lehiaketan: sari bana 1, 2. eta 3. sailkatutakoei.

Banakako lehiaketan: domina bana 1, 2. eta 3. sailkatutakoei.

6. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeron nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Xakeko Euskal Federazioaren Arautegiak.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.